# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

***4737***

AGINDUA, 2010eko irailaren 24koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Víctor Cotillas Ajuria jaunak Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengoa***.– Víctor Cotillas Ajuria jaunak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola; eskerrak ematen zaizkio egindako lanagatik. Lanpostuaren kodea: 520010; dotazioa: 175; lanpostu-mailako osagarria: 18; berariazko osagarria: VI-A.

***Bigarrena***.– Kargu-uzte honek 2010eko irailaren 27tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

***Hirugarrena***.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du. Beraren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio agindua eman duen organoari. Horretarako epea jakinarazpena egin eta hurrengo egunean hasi eta hilabetekoa izango da. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Vitoria-Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 24a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**

***4737***

ORDEN de 24 de septiembre de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se dispone el cese de D. Víctor Cotillas Ajuria como Secretario de Alto Cargo de la Consejería del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 50.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en uso de las atribuciones conferidas por esta misma Ley.

DISPONGO:

***Primero***.– Cesar como Secretario de Alto Cargo de la Consejería del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, código 520010 dotación 175, nivel CD: 18, CE: VI-A a D. Víctor Cotillas Ajuria, agradeciéndole los servicios prestados.

***Segundo***.– Este cese producirá efectos económicos y administrativos el día 27 de septiembre de 2010.

***Tercero***.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que lo hubiere dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.